

eta igazko urtean Bizkaiko Aurrezki Kutxak berrido. Baina, oraingo honek badu zerbait berezi aurretiko birargitalpenok ez dutenik: Julio Urkixok egindako ohar eta gehigarriak ditu, orrialdeen barrenaldian zenbakirik zenbaki jarriak. Eta horrek egiten du lehengo argitalpenak dituztenentzat erer, euskal bibliografiaz iharduteko, eskuetan hain beharrezko liburua izatea.

Euskarazko argitalpenen berri jakiteko liburu baliagarria. Inork inoiz ukatu ez duen gauza da hau eta hortaz ez dut hitzik idatziko. Vinson-ek bere garaian Euskal Herriko euskalarien aldetik begiramen onik izan ez bazuen ere, linguistikaz egin zituen ikerketez gainera gure literaturaren historia burutzeko oinarriak jarri zituen obra honen bidez, eta oraindik ere bertara jo beharra dugu xehetasunen bila. Bestalde, liburu ondo enkuadernatua merke jartzeaz aparte, eskertzekoa da horri gaineratzen badizkiogu Urkixok egin zizkion gehigarriok argitaratzea. orainarte Gipuzkoako Diputazioko agiritegian zegoen ilunpean eta liburu itxiak ez du fruiturik ematen. Horregatik, esan beharrik ere ez dago Urkixo Mintegiak zein lan ona eskaintzen digun hau argitaratzeaz.

J. S. M.

JOSE MARIA ETXEBARRIA. — *Euskal dialektologiarako testo eta ariketak*. 21 × 15 zm., 297 orr. eta mapen orri bat. El Carmen Argitaldaria. Gasteiz, 1983.

Liburu honekin euskal dialektologiaren azterketan beste aurrerakada bat ematen da. Baina, liburu honekin, aurrerakada bat baino hobea dena, zera da, linguistika arloko eskolaren adar berezi bat sortzeko urrats garrantzitsua eskaintzen digula esango nuke.

L. L. Bonaparte printzea izan zen gure euskalkiak mugatu zituena, joan zen mendearen erdian, garai haietan dialektologiarako ezagutzen ziren metodoekin. Geroztik ere, lan mono-

grafikoetatik (herri edo ibar soil batera mugatzen diren lanak esan nahi dut) aparte, beste ikerketa orokor anitz bada, liburu honen bibliografian bertan adierazten denez. Lagintza hontan, Euskal Herri osoari begira, ahaztu ezinak dira, besteak beste, 1913an Trebitsch-en lana, gaur egun Viena-ko Fonogrammar-chiv deritzan agiritegian dagoena (bere kopia bat bada Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekan), Euskaltzaindiak berak, Azkueren zuzendaritzapean elkarlanean burutu zuen Erizkizundi Irukoitza eta Pedro Yrizarrek oraintsu egina.

Baina, liburu hontan, J. M. Etxebarriak, azterketarako ikuspegi berri bat eskaintzen digu. Hitz-laxozko testuak han-hemen-diko liburu eta aldizkarietatik bilduaz gainera inoiz argitara-gabeko zati asko ere biltzen ditu dialektologian ari diren ikas-leentzat ariketagai, aurrekaldean bakoitzaren nondikakoaren fixta jarritz, non, nogandik, nork, noiz eta non argitaratu zen, edo nork utzi zion transkribapena, Jose Mari ber-berak jasoa ez denean. Egilea bera magnetofoz bilketa asko egina bait da, eta hortatiko esperientziak aprobetxatzen ditu adierazpenetan. Benetan liburu baliagarria, eta era hortakorik bakarra euskar-ren arloan.

Erizkizundi Irukoitzeko zenbait dato ere aurkitzen dira. Teoriaren barnean dialektologia geografikoa zertan datzan, egiturazkoa eta historiakoa. Sinkroniatik diakroniara estruk-turak erakutsiz.

Liburuan barna dituen diru zati edo adierazpen nagusiak: dialektologia lanetarako oinarritzko teoria, testu azterketarako arauak eta euskaldien testu adierazleak. Ikusten denez, Jose Mari Etxebarriak berak bere irakaslegoan erabiltzen dituen teknikak eta materialak dira, beste edornorrenzat ere probet-xugarri direnak.

Halako lanak noiznahi ez dira agertzen eta gure zorionik kartsuenak egileari.

J. S. M.